

ALTZA PORRU!

2011ko urria / 42. zenbakia

EHTE Allemendi 1, 20800 ZARAUTZ • TEL.: 943 83 28 28
www.trikitixa.net / www.trikimailua.com



Euskal Herriko
Trikitixa Elkartea
L.G.: SS-418-01

URRIKO AZKEN ASTEBURUAN OSPATUKO DA X. NAZIOARTEKO TRIKITIXA JAIALDIA

Urteurren borobila du aurten Nazioarteko Trikitixa Jaialdiak. Hamargarren edizio honetarako, ospakizun berezia prestatu du Euskal Herriko Trikitixa Elkartek Lizargarate Oñatiko Trikitixa Elkartearekin batera. Bi jaialdi izango dira, bata **urriaren 28an**, ostiralez, gaueko 22:00etan Andoaingo Bastero kulturgunean eta bestea, urriaren 30ean Oñatiko Institutuan arratsaldeko 17:30etan.

Nazioarteko trikitixa jaialdi honetan trikitixa eta biolina izango dira ardatz nagusi. Aurten, oholza gainean Irlandatik etorriko diren Stephen Doherty eta Patrick Doocey, Okzitaniatik etorriko diren Cyrille Brotto eta Alexandra Lacouche, eta Gaztela Leondik etorriko diren Jorge Arribas eta Diego Galaz izango dira. Bertako partaideen artean berriz, Jon Ostolaza eta Juan Arriola, Arrabots taldea eta Maixa Lizarribar, Ines Osinaga, Maite Loidi eta Xabier Zeberio ikusi eta entzun ahal izango ditugu.

Jaialdiez gain ordea, asteburu betea izango da urriko azkena, larunbaterako **urriaren 29rako**, egun osoko egitaraua prestatu baita Oñatin.

Goizeko 11:00etan *workshop* deritzen saioak izango dira Oñatiko Kultur Etxeko aretoan; atzerriko nahiz bertako musikariak gehiago eza-gutzeko solasaldiak, musika lagun. Atsedean txiki baten ondoren, 12:30etan berrekingo zaie *workshop* saioei. Jaialdian parte hartuko duten etxeko musikariak izango dira protagonista bigarren zati honetan. Arratsaldeko 13:30ak aldera, Oñatiko kaleetan barrena ibiliko gara kalejiran.

Arratsaldean ere izango da zer ikusi eta entzuna Oñatiko tabernetan; 20 minutuko saioak eskainiko dituzte oihartzun handiko hainbat musikaririk. 18:30etan, Umerez tabernan, Cyrille Brotto eta Alexandra Lacouche, Izer, Laja eta Narbaiza eta Elustondo anai-arrebak ariko dira. 19:30etan, Pako tabernan, Stephen Doherty eta Patrick Doocey, Jorge Arribas eta Diego Galaz eta Tapia eta Leturiaren doinuak entzuteko aukera izango da.

Tabernetako saio hauen ondoren, **herri afaria** izango da Oñatiko kiroldegiko frontoian. Herri afarirako txartelak, Oñatiko Urbia eta Umerez tabernetan, Kultur Etxean edo Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen eskuratu daitezke; trikitixa@trikitixa.net helbidera idatziz edo 943.83.28.28 telefonora deituz (goizez). **Izena emateko azken eguna urriak 21** izango da.

Jaialdietarako sarrerak egunean bertan erosteko aukera izango da, lehiatilik ordu bete lehenago irekiko baitira. Aurrez erosi nahi izanez gero, ordea, Andoaingo jaialdirako sarrerak kutxanet-en jarriko dira salgai urriaren 13tik aurrera. Oñatiko jaialdia ikusteko sarrerak berriz, aurrez Urbia eta Umerez tabernetan eta Kultur Etxean jarriko dira.



LANDAKANDAREN LIBURUA, ARGIA IKUSTEAR

Miel A. Elustondo idazlea azken ukituak ematen ari da jada Landakanda panderojolearen inguruko liburuari. “Landakanda, panderoaren erregea” izenburupean argitaratuko da Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen eskutik kaleratuko den liburua.

Ramon Zubizarreta, Landakanda baserrian jaio zen 1932an. Trikitixaren munduan arrasto handia utzi duen panderojolea da eta horregatik erabaki zuen Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak bere inguruko liburua osatzea. Soinuaren liburutegiko zortzigarren alea izango da honakoa. Landakanda izango da gainera, bilduma honetako protagonisten artean, lehen panderojolea.

Durangoko Azokarako eskura izango dugu “Landakanda, panderoaren erregea” izeneko liburua.



TRIKITIXAREN IX. JARDUNALDIAK, JENDETSUAK IZAN DIRA


Soinu txikia munduan; horixe izan da 2011 urteko trikitixa jardunaldien gaia. Ohi bezala, Donostiako Euskal Jaien egitarauaren barruan antolatu ditu Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak bi egunetan banatu diren jardunaldiak.

Hitzaldia, irailaren 5ean, astelehenez egin zen. Carles Belda trikitilari kataluniarra izan zen, “Soinu ttikiketa” izenburupean, munduan zehar soinu diatonikoak izan duen jatorria, ibilbidea, erabilpena eta beste hainbat kontu azaldu zituen.

Irailaren 8an, saio praktikoa osatzeko ardura berriz, Imuntzo eta Beloki trikitilariak izan zuten “Munduan Barna” izenburuari jarraituz. Jimmy Arrabit, Sebastian Othaburu eta Maider Ansaren laguntza izan zuten, munduan zehar trikitixa ezberdinekin jotzen diren estilo anitzak interpretatzeko.

Aurtengo jardunaldietan, soinu txikiak egin duen ibilbidea, izan dituen egokitzapen eta eraginak, jotzeko moduak eta beste hainbat berezitasun ezagutzen saiatu gara.

Hitzaldiak zein saio praktikokoak, erantzun ona izan zuten ikus-entzuleen artean. Lehenengoan, galderak eginaz eta hizlariarekin solasaldian jarraituz amaitu zen hitzaldia. Saio praktikoa berriz, txaloka eta kantuan erantzun zuen bertaratutako ikusleok.





KALEAN DA PIEZA BERRIAK BILTZEN DITUEN “GEURE KOLKOTIK 2011” DISKOA

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak iaz ekin zion pieza berrien bilduma osatzeari, sorkuntza bultzatzeko eta trikitilariak diskogintzara hurbiltzeko egindako apustuari eutsiz. Iaz bezalaxe, aurten ere bost trikitilariak parte hartu dute, bakoitzak hiru pieza bilduz.

Honakoak dira Geure Kolkotik diskoan topatuko dituzuen trikitilariak:

- Eneko Dorronsoro
- Laja II
- Lurdes Alkorta
- Iker Goenaga
- Epelde



Proiektu honetan, trikitilariak laguntzaileak izan dituzte alboan, bai panderoa jotzen, abesten nahiz perkusioaz aberasten. Hamabost abesti berrik osatutako diskoa, Hernaniko *Oh Brother!* estudioan grabatu zuten joan den ekainean Iñigo Egia teknikariaren laguntzaz.

TRIKITIXA TXAPELKETAK:

Uda sasoian trikitilari gazteen txapelketak izan ohi dira han eta hemen. Honakoak izan dira txapelketa horietan garaile izan direnak:

- * **Abuztuak 15:** Zeanuri, Euskadiko Trikitilari gazteen XXXI. Txapelketa:
Irabazleak: Itsaso eta Irune Elizagoien (Etxalar, Nafarroa)
- * **Abuztuak 28:** Azkoitiko Martitte auzoko trikitilari gazteen txapelketa:
Irabazleak: Itsaso eta Irune Elizagoien (Etxalar, Nafarroa)
- * **Irailak 7:** Zarauzko Trikitilari gazteen XXXI. Txapelketa:
Irabazleak: Ander Beldarrain eta Eider Iraola (Orio eta Zestoa)
- * **Irailak 24:** Zumaiako Artadiko trikitilari gazteen txapelketa:
Irabazleak: Ander Beldarrain eta Eider Iraola (Aia eta Zestoa)



GALBAHEA

Carles Belda trikitilariak, IX. Jardunaldietako hitzaldia-
ren amaieran lau gogoeta nagusi utzi zituen; trikitila-
riak eta perretxikoak konparatzerakoan sortutako
gogoetak dira ondorengo lerroetan laburbildu ditugu-
nak:

“Lehena: Zer behar dugu egiazko trikitilariak izateko?
Trikitilariok perretxikoak bezala gara; lurra, airea,
goxotasuna, iluntasuna, argitasuna, beroa, hezetasuna
eta azpian, mizerioa izan; kultura. Bertzenaz gezurra
hutsa da.

Bigarrena: Esporak, doinuak, erritmoak eta tresnak,
zabaldu egiten dira eta espora horiek ondo bihurtze-
ko konektatu egin behar dute lurrarekin. Ikus-entzule-
ekiko komunikazioak garrantzia handia du; giroa
sortu behar da. Jendeak ez badu maite, espora hori ez
da herrian geratuko; aldiz, gustura bada, espora hori
herri horretan geratuko da.

Hirugarrena: Onddo landatuei buruz; maite al ditu-
zue supermerkatuetako txanpinoiak? Printzipioz ez
dira sobera onak, egiazkoak dira onak. Trikitilariak
landa daitezke? Eta landatzen baldin baditugu, eskola
guztiak berdinak dira? Nola egin behar dugu landare
horiek edo perretxiko horiek jangarriak izateko edo
egiazko trikitilariak izan daitezen? Nire proposamena:
perretxikoen ikasgaia: familiakoak dira baina ez dira
berdinak sekula. Nire ustez nortasuna zaindu behar
da bai ala bai, trikitilaria izateko. Soinu txikia jo daite-
ke baina nortasuna beharrezkoa da pertsonaiak sor-
tzeke. Pertsonaiak sortu behar ditugu, hori da nire
ustez kontzeptu interesgarriena eta perretxikoekin
konparatuz, kezka hori sortu zait.

Laugarrena: Bada sistema bat, herri bat mikofiloa edo
mikofoboa den jakiteko. Adibidez: Zenbat izen herri-
koi daude euskaraz perretxikoendako? Milaka. Gazte-
leraz? Gutxi. Euskal Herrian, ondozaleak zarete;
mikofiloak. Sorian, mikofoboak dira; hartzen dituzte
esne gorriak eta zerriei ematen dizkie. Hori, teknika
hori soinu tikian aplikatzen badugu, ea zer geratzen
den. Adibidez zuluen hizkuntzan, *squash-box* deitzen
zaio. Mallorcan, *ses-orges*. Portugalen, *concertina*. Bra-
silen *sanfona edo gaita*. Argentinan, *verdulera*. Italian
organetto... Euskal Herrian, *infernuko hauspoa*: beha-
rezko deabrua.”

ZESUMA

Esne Beltza taldea, hirugarren lana prestatzen ari da

CD-az gain, DVD bat prestatzen ari da Esne Beltza tal-
dea, hirugarren lan honetarako. Biran eta Donostiako
portuan emandako kontzertuko irudiekin jantziko
dute. Egun horretan oholta gainean izandako gonbi-
datu bereziak agertuko dira, tartean, trikitilari eta pan-
derojole ezagunak ikusteko aukera ere izango da.

Diskoaren izenburua **"Hiru kolpetan"** izango da eta
abendurako plazaratuko dute, Durangoko Azokan sal-
gai izan dadin. Musikaz gain irudi eta testuek garran-
tzia handia izango dute lan honetan, proiektu multi-
media garrantzitsua osatuz. Azken lan hau kaleratu
ondoren atsedenaldira bat hartuko dute zuzeneko
dagokionez, indarrak batu eta berriz ere plazak bete-
tzeko.

Gaizka Peñafielek disko berria prestatu du

Bilboko Balea estudioan osatu du Gaizka Peñafiel tri-
kitilariak, bere hurrengo proiektua. Asier Ercillaren
ekoizpen musikarekin, 10 kantuk osatuko dute disko
berria.

Bilduma osatzerako garaian, Peñafielek kolaboratzaile
berezia izan du aldamenean; Kepa Junkera. Gaiz-
kak bere blog-ean dioenez, *“Junckeraren estiloa atze-
man ahalko duzue nota bakoitzean, lehendabizikotik
azkenekoraino”*. Junckeraren kolaborazioa luxu ordai-
nezintzat definitzen du Peñafielek.